



Aretxabaleta,  
1992ko irailak 24

# Aretxagazeta



## San Migelak

- *Karintiarrak  
Atxabaltan.*
- *Afizioak:  
Baserriko ogia  
egiten.*
- *Luis Mari  
Madinabeitia.*



Kurtzebarriko ikasleok berriro hartu ditugu motxilak eta eskolara bueltatu gara. Nahiz eta oporrak luzeak izan, laster pasa

## Itzuli gara eskolara eta gurekin euskara

zaizkigu. Kurtsoa hasteko euskararen astea antolatu dugu. Fenomeno pasatu dugu.

Aste horren helburuak, euskara erabilaraztea eta elkarrekin egotea izan dira. Hori lortzeko gela guztiak nahastuta ibili gara. Oso gogorra da bapatean lanean hastea. Horregatik bikain etorri zaigu aste interesgarri hau. Denetarik egin dugu:

Ugastegira joan, kirol txapelketak ospatu, jokuak egin, hitz egin e.a...

Ekintza guztietan, denok parte hartu dugu. Horri

esker hobeto ezagutzen gara.

Urtero ospatzen ditugun Euskararen Aste hauetan, beti daude aldatetak eta guri oso ondo iruditzen zaigu.

Pentsatzen jarriz gero, uste dugu suerte handia daukagula honelako asteak ospatu ahal izateagatik. Beste batzuk ez dute horrelako asteak egiteko aukerarik edo ezta eskolara joateko modurik. Horregatik penagarria da guk aukera hauek topean ez aprobetxatzea. Azken finean

gauza askotarako behar dugu euskara: gauzak erosteko, zerbait eskatzeko.....eta GEU-IZA-TEKO.

Lotsagarria da Atxalbaltan, Euskal Herrian egonda euskara dakiten neska-mutikoez eta helduek erderaz hitzegitea beti.

Astea bukatzeak eman digu pena handiena. Baina garrantzitsuen zegasia da eta hori da ahaztuko ez duguna:

Euskara geure hizkuntza, geuk erabili behar duguna.


"Euskara geure hizkuntza, geuk erabili behar dugula".

**Itsaso Arana.**  
**Nuria Arribas.**  
**Ana Isabel Gonzalez.**  
**Haizea Kobos.**  
**Iban Luelmo.**  
**Saila Saez.**  
**Kurtzebarri**  
**eskolako ikasleak.**

### Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05. 151 postakubxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Goretti Ayastuy **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala **Inprimategia:** Gertu Koop. E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Zer daukazu esateko San Migelei buruz?



**Pauxi Bengoa**  
(ikaslea)



**Roberto unanue**  
(Langilea)



**Arantzazu Del Fresno**  
(Ikaslea)



**Rosamari Uriarte**  
(Etxekoandrea)

San Migeletan kanpotar asko egoten da eta niri gehiago gustatzen zait Andramaixak. Orduan jende gutxiago egoten gara, baina jende ezaguna eta hobeto pasatzen da. Kanpokoak zozaokoak dira eta.

Nahiko berde dau dela uste dut. Andramaixetan falta dena potentziatzeko tabernek kolaboratu behako lukete txarangekin etb. Dirua falta dela uste dut eta baita gauza gehiago eta denbora gehiago.

Andramaixak baino hobek izatea espero dut, jende gutxi egon zen eta. Gazteendako gauza gehiago egon daitezela nahiko nuke, gehienbat helduendako izaten dira eta, eta tabernak beranduago ixtea espero dut.

Beste urte batzutan oso politak izan dira, baina aurtengoaz oraindik ez dakit ezer, oraindik ez dut programa ikusi.

## KARTAK

# Everesteko azkenengo faxa

Namaste Euskadi!!!  
Atzo irailak 14a, 3. kanpamendura iritsi gera (7.300m). Eguraldi nahiko ona da, nahiz eta tarteka oraindik monzoiak bere eragina izan. 3. kanpamendura iristeko bi egunetako lana behar izan dugu, nahiz eta hiru egun tardau, bat eguraldi txarra egin bait

zuen.  
Orain gure asmoak hauek dira, irailak 15 bigarren kanpamenduan atsedena hartu, irailak 16an hirugarren kanpamendura igo eta bertan lo egin, irailak 17an behoko kanpamendura jeitsi, 4 - 5 bat egun deskantsatzera. Ondoren berriz hasiko gera

lanean gorantza begira.  
Orain arte gauzak nahiko ongi irten zaizkigu, aurrerantzean ere horrela izatea espero dugu.  
Besterik gabe, laster arte!!

**Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitetzte, zuen karten zai gaude eta.**



## Karintiakoak Atxabaltan

Aurreko zenbakian jakitera eman genuenez, irailaren 16an eguaztean Karintiarrak Atxabaltan izan genituen. Atxabatako Udaletxeko balkoia bandera eta hemengoarekin ondo txukunduta ikusi zitezkeen. Barnekaldean barriz lorak ageri ziren alde guztietan eta udaletxeko denak nahiko urduri noiz etorriko zain. Etorri zirenean korbatadun jende ugari alkartu zen Udale-

txe inguruan, Karintiako delegazioa eta euren zaindaria zirela batetik eta Atxabaltako Udaletxekoak zirela bestetik. Pleno aretoan sartu ziren lan bilerak egiteko eta horren ostean industrialde berria inaguratzera joan ziren eta han zinta moztu eta lehengo harria ipini zuten.

Arratsaldean, Otalona jauregian ondo bazkaldu ondoren berriro

Maria wörth kalea inaguratzera jaitsi ziren. Kasu horretan badirudi anekdota bat gertatu zela: Inaguratzean ebakitzen den zinta falta zen eta orduan urduritasuna nabaritu zen. Ondoren ikurrin bie agurra egin zitzairen eta nahiko jende bildu ziren ekitaldi horiek ikusteko. Foklore saioa ere izan zen: korua, dantzariak, txalaparta eta txistulariak... Gero Karintiako Lehendakariari Atxabaltako urrezko domina eman zitzaion, hau ematen den bigarrena da eta makila ere jaso zuen. Hauek botatako diskurtso batean

Atxabaltako neskak gustokoak zituztela esan zuten eta badirudi nahiko gustora ibili zirela. Gobernua autonomikotik etorritakoak ere izan genituen: Eli Galdos, Jon Azua eta SPRI-ko ardura-duna. Bisitaldi honekin Mari Wörth-ekin dugun harremanak sendotuko zirala uste dugu eta akordio batera ere helduko ziren seguraski.

Afal ostean despeditu eta joan egin ziren. Hurrego egunean Gasteizen beste ekintza batzuk zituzten Jaurleri-tzako kontseilariekin eta Ardantza lehendakariarekin.



Basabe poligonoa  
A-15

Tfnoa 79 34 28

**IZOTZ  
TABERNA**

MITARTE KALEA  
Tfnoa 79 73 65



**Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria**

**ZAPE**

**ARTEGINTZA**

Lezama merkatal  
zentrua, 14



## Kurtzebarri eguna

Aurten ere ospatu zen Kurtzebarri eguna. Oraingoan lainoa izan genuen protagonista, ez zen gauza handirik ikusten. Hala ere jendea bildu zen, bateronbatzuk beharbada bidean nahiko larri ibili arren ere, goraino heldu ziren. Goizeko 11.30tarako han zeudenek meza entzuteko aukera izan zuten. Meza Suberok eman zuen eta nahiko gertutik ez bazen ez zen posible bera ikustea. Ondoren txanpana eta salda hartuaz batera dantzatxo batzuk ere bota ahal izan zituen jendeak. Trikiti batzuk dantzatzuz berotzeko aukera izan zuten denek. Gero

poliki poliki beheruntz jaitiaz joan ziren gehienak eta nahiz eta ia eguardia izan, oraindik lainopean jeitsi beharra izan zen. Hala ere gustora pasatu zuen jendeak eta Kurtzebarri eguna Atxabaltarrentzat beti izango da egun berezia. Beste urte batzutan bezperatik ere igo izan da jendea eta badirudi aurten ere izan zirela horretara animatu ziren bateronbatzuk. Hauek ez zuten ez hotz gutxi pasatuko gau osoan Kurtzebarri puntan. Beste ausart batzuk zankoekin igo zuten goraino. Hori bai ausardia daukazutela zuek, Patas eta lurgi.

## Hiesari buruzko ekintzak

Datorren astean hiesari buruzko hitzaldiak izango dira:

Astelehenean 28an hiesari buruzko aspektu orokorreari buruz berba egingo du Txagorritxuko mediku batek.

Martizen 29an hiesa eta sexualitateari buruzkoa izango da. Hizlaria sexologo bat.

Asteazken 30an debatea izango da hiesaren oraina eta etorkizunari buruz. Hizlariak: Osakidetza zeko planeko errepresentante bat, hiesaren aurkako asoziazioeko beste bat, gaixo bat eta "proyecto hombre"-ko beste bat.

Asteleheneetik eguakotxa euskaltegian kartel erakusketa bategongo da. Eta urriaren 4ean mahai informatibo bat izango da Atxabaltako erdialdean.

Arikulu honen biartez, jendea konbidatzen dugu, herrianezezaguna den gai bat delako, pena mereziko du.

Aipatu ditugun hitzaldi guztiak Gaztetzeari izango dira.

• Irailaren 25ean eskulan ikataroari hasera emango zaio. Irakaslea Piedad Roman izango da eta prezioa 2.000 pza eta 1.000 pza gazte txartelarekin. Apuntetako Kultur etxera jo lehenbailehen plaza mugatuak daude eta.

• Txistua jotzen ikasteko ikastaroak antolatuta dira, adin guztietarako. Baldintza: solfeoan oinarri bat edukitzea da eta hasiera urriaren 5ean emango zaio, astelehenean 6.30etatik 8etara. Izenak kultur etxean eman daitezke irailak 30a baino lehen. Hauen helburua gabonetarako txistulari talde bat kaleratzea da.



Bere Bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 01 72

## SAGASTA ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra-instalaketak


Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

## BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12

ARETXABALETA



## Zer da Hirugarren Mundu Taldea?

Aste honetarako atara duten orrian diotena aprobetxatuko dugu talde honen berri emateko. Herriko pertsonaz osatutako talde bat da. Sortu zirenetik bi helburu dituzte:

-Herrialde Pobreen egoerari buruz Aretxabaletarrak kontzientziatzea.

- Laguntza bidaltzeko bideak herritarrei eskaintzea.

Urtebete daramate lanean eta proiektu bat landu dute batez ere: Indiako Unai eskualdeko adibasiel laguntzeko **Aretxabaleta-Unai proiektua**. Proiektu honetan dagoeneko 83 pertsona edo familiak kolaboratu dute.

Udalari ere bere aurrekontutik %0,7 ko o p e r a z i o proiektuetarako ematea eskatu diote, ONUk gomendatzen duen bezala.

Hortik aparte orain arte hainbat Hitzaldi antolatuta dituzte. Gai honetaz arduratzen diren taldeekin harremanetan daude, eta artxibo bat egiten ari dira. Euren asmoetan dago eskoletan gai hau azaltzeko materialarekin laguntzea ere. Nafarroa kalean Udalak utzitako lokalean biltzen dira hilero.

## Hirugarren Munduko Astea

Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldeak ekintza aste bat prestatu du datorren asterako, Irailak 28tik Urriak 2ra. Talde hau orain dela urtebete eta piko sortu zen, eta bere helburua Aretxabaletan Hirugarren Munduko problema azaltzea eta laguntza eskaintzea da.

### Hitzaldiak eta panelak

Lau ekintza nagusi prestatu dituzte. Batetik aurreko astean eskoletan kreatio lanak egingo dira gai honi buruz eta plazako arkupetan jarri. Bestetik panel batzuk egingo dituzte Hirugarren Munduari buruzko datu eta argazkiekin, eta kalleetan erakutsiko dira.

Bi hitzaldi ere prestatu dituzte. Bata, asteartean (irailak 29) 7etan

Udaletxeko ganbaran: "Zergatik lagundu? Nola lagundu?" izenarekin. Bestea ostegunean (urriak 1) 7etan Urutz Alden, misioen lanari buruz. Gainera Diapositiba emanaldiak izango dira beste hiru egunetan, 8etan.

Asteazken arratsaldean, horman jarteko mural erraldoi bat pintatuko da Hirugarren munduko gai bati buruz.

### Justizia, ez limosna

Aste honen helburua hauxe da: Aretxabaleta sensibiltzatzea herrialde pobreen egoerari buruz. Bi ideia azpimarratzen dituzte: Aretxabaletan kontsumo maila altua daukagu baina hori hirugarren munduaren esplotazioarekin lotuta dago. Orduan, koope-

ratzea justizia da, ez limosna.

Hirugarren Mundu Taldeak Aretxabaleta-Unai proiektua dauka martxan. Beste kooperazio mota batzuk ere bultzatzen ari dira. Maila handi batean diruarekin laguntzea da kontua.

Edozela ere, Hirugarren Munduko Aste honetan ez da laguntzarik eskatuko. Aste honen helburua bakarra da: sensibiltzatzea.



Oraingoan Maria Gallastegikin izan gara. Mariak baserriko ogia egiten du, bai etxerako eta baita saltzeko ere. 40 urte baino gehiago daroa Mariak ogia egiten, betidanik ikusi du nola egiten zuen amak ogia etxean eta gero berak ere horretan jarraitu du.



## Baserriko ogia egiten

• **Denbora asko behar izan zenuen ikasteko?**

• Beti ikusiaz akordatu gabe ikasten da, baina esplikazioaz bakarrik ezin da.

• **Asko disfrutatzen duzu egiten?**

• Gustora egiten den lanarekin asko disfrutatzen da. Oso ona urte ten baduhobeto.

• **Lehenagoko labetatik gaurko labakoetara badago**

• Bai, nik uste dut baietz. Guk gaur daukagun laba lehengoa bezalakoa da, baina orain laba modernuaz ere egiten dira, sapai bajukoetan. Nik uste dut laba horrekin diferentetxuagoa ateraten dela.

• **Zenbat denbora dedikatzen diozu ogia egiteari?**

• Astean behin edo birritan egiten ditut eta bakoitzean hasi eta bukatzera 5 bat ordu

behar ditut.

• **Etxekoek zer esaten dizute?**

• Etxekoek oso gustora hartzen dute, egun bat edo bi kaleko ogiaz egiten badugu denak kantsatu egiten dira. Askotan etxean lan larregi egiten dudala esaten didate, zeren nahiko lan dauka, batez ere amasatzeak indar asko behar delako.

• **Ogia egiteak badauka sekretorik?**

• Sekretu printzipalena ondo amasatzea eta labaren berotasuna neurtzea dira,

• **Zein da prozesua?**

• Lehenego uruna bahean pasatzen dut askotan pelotatxoak izaten bait ditu eta horrela finago urteten du. Gero ur beroa eta azkarria nahastu eta masa egin. Ondoren masa arraultzarekin untatu eta laban sartuaz joan. 27 bat ogi sartzen dira laban eta horreik dira masa bakoitzeko egiten ditudanak.

• **Zer da zailena?**

• Zailena, labaren berotasuna ondo neurtzea eta ondo amasatzea.

• **Ikusten duzu zure ondorengoetan jarraipenik?**

• Nik uste dut bateronbatak jarraituko duela.

• **Anekdotarik badaukazu?**

• Bigunegiak atera zaizkit urun gutxi zegoelako etxean eta beste norabait joan behar urun bila. Lehen etxeko gariak egiten zen, Urkulun uruna egin eta gero etxean ogia.



Iparragirre, 4  
Tfno: 79 21 24  
**ARETXABALETA**



**INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A**

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66



**OYAR**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 15 70



Autoservicio  
**ANGELINES**

Mitarte, 16  
Tfnoa: 79 61 42

San Migel jaiak heldu dira eta prest gaude parte hartu eta ondo pasatzeko. Aurten jai bereziak izango ditugu: erromeria. Gure gurasok izaten zuten erromeria antzeko bat egitea izan da aurtengo helburua. Bertara base-rritar jantzita joan behar da, giroan sartu gura duenak behintzat. Ea ba aurtengoak ere aurreko urteotakoak bezain alaiak eta animatuak diren.



## Andramaixen ostean San Migelak

Gaur egun jaien demanda haundia ei dago, jendeak ondo pasetako "beharra" ei dauka eta Aretxabaletan ere gauza bera gertatzen dabilela esan daiteke. Abuztuan Andramaixak izan genituen, baina hori itxura denez, ez da nahikoa; jai egun gehiago behar ditugu eta baita haundiagoak ere.

Andramaixetan gehienok oporretan gaudenez, zergatik ez beste jai batzuk? "Behar" hori ikusita, orain bi urte, herriko Kultura Batzordeak eta kuadrilen ordezkariak, batzar batzuk izanda gero, herriko beste patriarengana jo zuten ate joka, eta horrela San

Migel jaiak berpiztea lortu zen.

### Hasierak

Orain dela urte bi, San Migeletan jaiak ospatzea erabaki zenean, herriko kuadrilen ordezkariak eta Udal Kultura Batzordeak ezkontza aukeratu zuten lehenengo urterako. Ezkontza Euskal Herriko beste herri batzuetatik jasotako ideia izan zen. Esperimentuak ondo urten zuen, desfilean atxabaltar askok parte hartu zuen eta jendeak ondo erantzun zuen. Atxabaltarrek jai gehiago gura zituzten. Lehenengo urteko

erantzun ona ikusita, hurrengo urtean bide beretik jarraitzea erabaki zen: herrian zehar desfilea egin zen eta gero bataioa plazan.

Baina aurten, ezkontzen eta bataioen kontua agortu denez, kaleko giroa eta jendearen parte hartzea gehiago indartu guran, erromeriaren aldeko apostua egin da. Izan ere, erromeriak edo euskal jaiak modan jartzen hasi dira berrito ere, horrelako jaiak indartuaz doaz Euskal Herrian zehar.

Hala eta guztiz ere, aurten gazte askok faltan botako dute eguakotzeko kontzertua, euren "martxa gehiago" eskatzen dute. Azken finean, herriko jaietan beharrezkoa da gehienek gustoko gauzak izatea eta rock kontzertu zaleei ez zaie arrazoirik falta.

### Elkartek

San Migel jai hauek indartzeko herriko elkarte batzuk egiten dabilzan ahalegina ere inportantea da:

"Hirugarren Munduaren aldeko" elkartearen erakusketa, Beinkeren inguruko sagardau, ogi eta gaztai erakusketa,.....Horrelako inizatibak eskertzekoak dira, jaiak gehiago jartzen dituzte eta.

Denok gura edo behar ditugu jaiak, fabrika eta eskolan lan asko egiten ei dugu, erreta urtetan dugu lanetik, gure gorputzek eta

**Aurten oso ekintza desberdina antolatuda, ez da aurreko urteetan moduan errepresentazioa egingo. Orain gora erromerixa izango da.**



"espirituek" gauza  
diferenteak egitea  
eskaketa dute. Hori dela  
eta, atxabaltarrok gertu  
gaude San Migel jaietan  
ondo pasetako.

Aurten beraz ekintza  
desberdina izango degu  
San Migel hauetan: bate-  
tik erromeria izango da,  
beste urte batzutan teatro,  
antzeko bat egin izan bada  
ere aurtengoa ez da ho-  
relakoa izango.

Erromeria honetara  
jendea baserritar jantzita  
etortzean gomendatzen  
da, horrekin euskal jai  
itxura gehiago emango bait  
diogu denon artean. Or-  
duko erromeriaren antza  
har dezan jantzia garran-  
tziatsua izango da. Egongo  
diren ekintzek ere lagun-  
duko dute giro aproposa  
sortzen, baina horretarako  
jendearen partehartzea  
ezinbestekoa da, beraz  
animatu eta etor zaitezte  
denok baserritar jantzita.

Bestalde aurten afaria  
izan beharrean bazkaria  
izango degu, garai haietan  
erromerietan bazkariak  
egiten bait ziren, zeren  
erromeria hauek egunez  
ospatzen ziren eta. bazka-  
ria dela eta egun osoan  
zehar izango da jai eta ez  
bakrik ilunkara aldean.  
Goizean zehar hemengo  
elikagai tipikoak probatze-  
ko aukera izango degu::  
gazta, talo eta sagardoak.  
Gainera, bazkaltzeko ere  
hemengoak diren baba-  
rrunak izango ditugu jate-  
ko eta ondoren legatza eta  
postrea ez da faltako, nos-  
ki.



## EGITARUA

Eguakotxean emango  
zaio hasera San Migel jai  
atletismo ekitaldi batekin,  
Mila Urbanarekin hain zu-  
zen ere. Gauean berriz  
pelota partiduak izango  
dira Iturrigorri frontoian  
10.30ak inguruan.

Zapatua izango da  
egun fuertea eta egun  
honi hasera emateko  
10.30etan etxalferu jaur-  
tiketa egongo da eta baita  
diana ere. Egun hau jubi-  
latuen eguna ere bada eta  
hauentzako ekintza be-  
reziak egongo dira.

Besteondako poteo  
herrikoa izango da  
12.30ak inguruan eta ani-  
matzeko trikitilariak izango  
ditugu gurekin. 2.30ak in-  
guruan Herriko plazan he-  
rri bazkari eder bat jateko  
aukera izango degu.

Arratsaldean, 4etan  
Kurtzebarri eskolan xake  
bizkorra ospatuko da eta

**Zapatuan  
herri bazka-  
ria izango  
da eta egun  
horigirotze-  
ko asmoz  
jendea ba-  
serritar jan-  
tzita etort-  
zeko go-  
mendatzen  
da.**

bestalde Erdiko kalean ain-  
tzinako jokuak eta herri ki-  
rolak. Honen ostean 6rak  
aldera bertsolarien saioa  
entzun ahal izango degu.  
Gauean berriz Maixa eta  
litziarrekin dantzaldi eder  
bat izango degu Durana  
kalean. Bitartean bolo txap-  
elketa ikusteko aukera  
ere egongo da eta gero  
gaupasa egiten duten  
guztientzat, Setan Mitarte  
kalean salda eta txokolata  
beroa egongo da.

Domekan, txirrindula-  
ri lasterketa izango da eta  
12etan Meza Nagusia Pa-  
rrokian. 12.30etatik  
13.30etara kaleko antzer-  
kia izango da "Traperos del  
Rio" taldearekin. Arratsal-  
dean trikitilari eta buru-  
handiekin kalejira egongo  
da eta gau aldera aikuska  
txarangarekin dantzaldia,  
honekin jaiak bukaera  
emanaz.

# Jose Ignazio Iturbe: Atxabaltatik Hego Amerikara

- Non jaio zinen?
- Atxabaltan.
- Noiz joan zinen

## Atxabaltatik?

• Hemendik 1968an Zaragozara joan nintzen, han 3 urte eginda gero Frantziara joan eta han postulatua egin nuen. Gero berriro Zaragozako probintzia batera bueltatu nintzen nobiziadua egitera, handik Malagara eta 3 urte pasa ondoren berriro Frantziara filosofia eta teologia egitera. Guzti hau bukatu eta gero Perura joan eta han 8 urte egin nituen eta gero beste 4 Colombian.

## • Zergatik joan zinen hemendik?

• Bokazio erlijiosogatik batez ere.

## • Zerk inpresionatu zintuen gehien?

• Gehienbat Peruk. Denbora gehien horrekin nuen. Herri gaztea zen han jendea beste toki batzutatik etorri eta han instalatutakoak ziren. Hango jendearen izakerak asko inpresionatu ninduen: oso zabalak eta humilak ziren. Ni laster zabaldu nintzen eurekin eta lagun handiak egin,



familia antzeko bat sortuz.

## • Zer egiten zenuen han?

• Perun, Kongregazioaren karisma euren bizitza lana eta adiskidetasuna konpartitzea zenez, eurekin bizi ginen. Esku lanak egiten genituen, nik bereziki aroztegi batean. Ez genuen zerbait berezia egiterik, adiskidetasuna eta konpartitzea zen

gure lana.

Gero Colombian, lan oso desberdina neukan. Han ezkondu eta kongregaziotik atara nintzen. Bertan gazteendako erreabilitazio zentru batean aritu nintzen lanean. Nire lana " bisitador social " izatea bezala zen, nik etxean zeuden gazteak bisitatzen nituen eta datuak hartu.

## • Ze desberdinta-

## sun aurkitu duzu Atxabaltan?

• Askoz etxe gehiago egin direla ikusi dut. Bestalde gazteen bizimodua ere aldatuta dago.

## • Herriminik sentitu duzu?

• Perun ez, oso gustora nengoelako. Colombian aldiz bai, bakarriago sentitzen nintzelako.

## • Zer gustatu zaizu gehien Atxabaltatik?

• Egin diguten harriera, laguntzak eman dizkigute eta.

## • Zein da gehien harritu zaituen ohitura?


• Jai berezi bat egiten da, " corta montes " deitutakoa. Hemen jendeak erregaluz betetako zuhaitz baten inguruan dantzatzen du aizkora bat pasatuz. Azkenean zuhaitza botaten duenak hurrengo urtekoa ekartzeko ardura dauka.

## • Anekdotarik?

• Colombian auzo arrisksuetatik ibiltzen nintzen eta behin kale batean gazte pila batekin aurkitu nintzen, denak niri begira zeuden. Bildurtu egin nintzen eta bueltan abade batekin konfunditu nindutelako ez zidaten ezer egin, bestela askotan jendea hil ere egiten dute.

## • Zeure buru Atxabaltartzat daukazu?

• Bai baina baita Perukoa ere zeren han 8 urte egin nituen.



## Luis Mari Madinabeitia

• Noiz hasi zinen futbole?

• Almenen ikastenuen eta orduan han futbito egiten genuen, gero 7 urtekin Almeneko kategorian sartu nintzen eta handik U.D.Ara pasatu. U.D.An 4 urte egin nituen eta azkeneko urtean Beasainen ibili naiz.

• Zer moduz zabilta Beasainen?

• Orain arte oso gustora, aurtengo erresultatuak oso onak ez izan arren.

• Badaukazu gor-

goko ekipo batera joateko asmorik?

• Ez, hemendik aurrera ez dut uste gora egingo dudarik.

• Aurten zelan ikusten duzu Beasaingo ekipoa?

• Fitxaje barriak egon dira eta nahiko fuertek gainera. Nik uste dut hasiera txarra izan arren klasiifikazioan erditik gora gelditzeko posibilitadeak ditugula, igoko dugu goruntz poliki poliki.

• Eta zeure burua

zelan ikusten duzu aurtengo tenporadarako?

• Titular jokatzeari nahiko zaila da, baina ahaleginak egingo ditut ondo jokatzeko eta gero eta gogorrago.

• U.D.A eta Beasaingo ekipoarren artean desberdintasun handia dago?

• Beasain kategorian altuagoan dago, baina ambiente aldetik antzerakoak direla uste dut. Ni U.D.An gustora ibili nintzen eta orain Beasainen ere oso gustora nabil.

• Kategorian altuagoan izatean zure aldetik gehiago jarri behar duzu?

• Bai galtzen da desberdintasuna, gero eta kategorian altuagoan zenbat eta lan gehiago eta ahalegin gehiago egin beharra daukagu.

• Galtzen duzuenaz zer?

• Igaz ahaztuta geneukan zer zen galtzea zeren ia partido gehienak irabazi egiten genituen edo bestela enpatatu. Baina aurten 5 partidutatik bat bakarrik irabazi dugu eta orain konturatzen gara galtzea zer den.

• Irailak 28 astelehena, 29 asteartea eta urriak 5an odol emaleen ekipo ibiltaria izango da Atxabaltan. Egun horreitan odola eman nahi dutenek joan daitezela Osasun Zentrura Arratsaldeko 4.30etatik 8etara.

• Urriaren 19tik abendu erdirarte Taila ikastaroa izango Okila taldearen tailerrean. Ikastaro honek 50 orduko iraupena dauka eta astean 6 ordu izango dira hase-rako mailatik hasita. Izen emateak Okila taldearen tailerrean 6.30etatik 8.30etara eta Udaletxe eta Kultur Etxean bulego orduetan eman ahal izango dira.

**JAUREGI**

**OKINDEGIA**

Otalora, 10

**Aretxabaleta**

**ARBULO  
URDAITEGIA**

Tlfnoa: 79 02 24

**Jantzi Denda**

**ASENSIO**

Mitarte, 12 - Tlfnoa. 79 10 72  
Aretxabaleta



San Migel eguna hurbildu zaigu eta gure herrian izan duen eragina kontuan harturik, hona hemen zenbait bitxikeri.

Aretxabaletan San Migel aipatzen dugunean, Bedarretako San Migel eliza zaharra datorkigu gogora, gaur egun kanposantu dena. Agirietan ez da sorrera

datarik agertzen, baina bere aztarnak ikusirik (arku bi, besterik ez) erromanikoa zela esan dezakegu (XII-XIII. m). Ertaroan, gure bailara Oñatiko jaunaren menpean egon zen garaian, bera zen eliza, diru eta errenten ugazaba. 1560. urtean monastegiko alkate bat zegoela aipatzen da; honek, hazien-

da eta errentak administratzen zituen, bai Leintz Bailarakoak, bai Arrasaten zituenak ere.

Dirudienez, XVI. mendearen hasieran, Bedarretako San Migel elizak bere indarra galduz joan zen (1524. urtean Leintzeko biztanle batzuk Andra Mari elizan lurperatuak izatea eskatuzuten). Gero, XVII.

mendearen, Bedarretako San Migel eliza Andra Mari elizaren menpeko agertzen da.

1809. go. urriaren 10ean herrietan kanposantuak eraikitzeko agindua jaso zen, eta honen ondorioz Aretxabaletako Kontseiluak "Hermita de San Blas" izeneko lekuan kokatzea erabaki zuen. Baina lur buztintsua zenez eta bere kokapena desegokia ikusi zutenez, Bedarretako San Migel eliza bota eta kanposantua bertan eraikitzea erabaki zuten.

1810. go. ekainaren 12an Bedarretako San Migel eliza bota zuten. Adreilu eta teilak, herriko ostatuan bizi ziren frantses armadako soldaduak mantentzeko saldu ziren.

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN


• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko kamiseta bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago? (Kirolarekin zerikusi handia dauka)**

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Oro auzoan)



**Aurreko lehiaketaren irabazlea EDURNE ORTIZ DE ZARATE izan da. Zorionak!**

Erantzuna: .....

- Izen-abizenak: .....
- Helbidea: .....
- Tfnoa: .....

## AMANTALAZ



Oraingo sukaldariak: Pagalday ahizpak

## Almendra Budina

4 edo 6 lagunentzako osagaiak:

- 250 gr azukre.
- basokada bat ur.
- 8 arraultza.
- Karameloa.
- 100 gr almendra.

## Zelan egin:

Ontzi batean 250 gr azukre eta basokada bat ur nahasten dira, urazukrea hebra puntuan jarri arte.

Beste ontzi batean sei gorringo, bi arraultza osorik eta 100 gr almendra eragiten dira. Dena nahastuta urazukrera botatzen da, eta ondoren aurretik karameluarekin gertu dagoen flanerari jartzen da. Mari-bainutan ipini eta bere puntua hartzen duenean atera egiten da.

## POESIA

## ESKUAL HERRIA

Nork entzungo ote hire irria?  
 Nork altxa, berriz, hire harria?  
 Nork berridatziko ote  
 hire historiaren orria?  
 Nork bizi  
 udazkeneko azken urria?  
 Nork konponduko ote  
 hire aberria?  
 Agian, herriak?  
 Oi, Euskal Herria!

## AMA EUSKARARI

Hizkuntzak eztira estudiatzen  
 ikasten baizik.  
 Eztira ikasten  
 hitz egiten dira baizik.  
 Eztira hitz egiten  
 bizitzen dira baizik.  
 Eztira bizitzen  
 izaten dira baizik.  
 Eta hizkuntza -euskara- da  
 guztiau azaltzen duena.

Urtzi

## KOMIKIA



# APUNTETAKO

## 25

### EGUAKOTXA

• San Migel jaien hasiera. (ikus egitaraua)

## 26

### ZAPATUA

• San Migel jaietako erromerixia. (ikus egitaraua)

• Jubilatuen eguna: Goizeko 11.30etan salda Basotxon. Eguerdiko 12.30etan elizaruntz zuzenduko gara, Loramendiko dantzari eta txistulari taldearen laguntzarekin.

Eguerdiko 1etan Atxabaltako eleiza

nagusian meza.

Arratsaldeko 2etan bazkaria Kirol-Etxean, Kintanilla soinu-jotzaileak alaituta.

## 27

### DOMEKA

• San Migel jaien jarrapena. (ikus egitaraua).

• Zaraia mendi taldearen irteera: Zaraia-itzulia.

• Murruxiko Mendi Elkartean irteera: Pelinkobara.

• Zikloturista taldearen ibilaldia: Atxabalta-Aramaio-Kruzeta-

Otxandio-Zubizabal-Ubidea. (70 km).

## 28

### ASTELEHENA

• arratsaldeko 7etan Gaztetxean: Hitzaldia: Hiesaren aspektu orokorrak.

## 29

### MARTIZENA

• Arratsaldeko 7retan, gaztetxean hitzaldia: Hiesa eta sexualitatea.

## 4

### DOMEKA

• Zaraia Mendizale taldearen irteera: Aitzgorri-Butreatz.

• Zikloturisten irteera: Aretxabaleta-Arlaban-Ozaeta-Heredia-Salvatierra(79Km)

• Futbol partidua: U.D.A - Euskal Herriko Unibertsitatea.



# ARETXAZOKA

## Etxebizitzak

• Etxebizitza salgai, kamara eta garajeaz. Erosi nahi duenak, Dis-Tel dendara jo dezala.

• Garaje bat salgai Murubide plazan, 8. zenbakia, goiko pisua. Tfnoa: 77 00 55.

• Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan. Tfnoa 88 67 23.

## Lana

• Injenieritzako ikasle bat klaseak emateko prest: matematika, fisika eta kimika Tfnoa 79 10 51





• Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldez 79 72 92 tfnora.

## Salerosketak

• Opel Corsa ss-x salgai. Berri berria dago. 76.000 km ditu. Prezioa 380.000 pza. Tfnoa: 79 55 75.

• Bost lagunentzako kanping-denda salgai. Tuboak aluminiozkoak ditu. Tfnoa: 78 04 89.

**Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.**

  
  
  
**GARAGE  
OSKAR**  
Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74**ZARIAI TABERNA**  
GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN  
  
MANTEKA  
ANAIAK**BASABE  
JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84**GARAGE  
" EDER "**  
Karrozeria  
mekanikoa  
IBARRA S/N  
Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA****Mobiliario**  
**ARENZA**  
ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA  
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA  
**EROSKI**  
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEAN  
Tfno: 79 16 05**Oilasko - urdaitegi - izozkiak**  
**IÑAKI**  
Gipuzkoako plaza, 1 Tfnoa: 77 02 99  
**ARETXABALETA****NERIAN**  
Loradenda  
Otalora, 14 behea  
Tfnoa 79 70 66**MITARTE  
GARAI  
( JATETXEA )**  
Arientzan  
Tfnoa: 79 17 51  
**DORLAK**  
  
**ARETXABALETA**  
Basabe Poligonoa, C.O.2.3  
Tfnoa eta Fax (943) 79 82 77*Gozkitegi, S.L.*  
  
**GOZODENDA  
eta IZOZKIDENDA**  
Otalora kalea: 11  
Tfnoa: 79 93 58  
BITXITEGIA  
**MIREN & ZURINE**  
BITXIEN DISEINUA  
Otalora kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57  
**ARETXABALETA**  
  
  
**GARAGE NORTE, S.L**  
OPEL AGENTZIA OFIZIALA  
Basabe Pasealekua - A - 13 - Tfnoa: 79 62 65



# ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkarte, Kultur-etxea.  
ARETXABALETA  
Tlfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila.